_ _ditorial



Irakurlearen ahotsa

urte daramatzat Pyrenaica zuzentzen eta oraindik Editorialik idatzi gabe nengoen. Unea heldu da, beraz, 21 urte baitziren aldizkariaren irakurleen gustuak eta sentsibilitateak ezagutzeko inkestarik egiten ez genuela. Oraingo honetan, alor horretako profesionalen aholkuari jarraituz, euskarria aldatu eta inkesta Pyrenaicaren web-aren bitartez burutzea erabaki genuen, enpresa aditu baten kudeaketaren laguntzaz. Hilabete baino epe laburragoan 500 bat pertsonak galdetegia betetzea genuen helburu.

Jende gutxik parte hartuko zuen beldur ginen Pyrenaicako erredakzioan, baina errealitateak gainez egin zigun, lehenengo lau egunetan jadanik 400 irakurlek erantzunda baitzeukaten galdetegia eta, ondorioz, sarrera itxi behar izan genuen aurreikusita zegoena baino 18 egun arinago, baliodun 656 inkesta geneuzkala. Enpresa kudeatzailearen eskaera izan zen, itundutako kopurua 156 aletan gainditua genuen eta. Horregatik, mila esker guztioi!

Parte hartzea oso desberdina izan da Herrialde batzuetatik besteetara. Punta-puntan Bizkaiko irakurleak daude, harpidetza guztien % 29,17 izanik, betetako inkesten % 38,9 baitira. Kontrako muturrean Gipuzkoa dugu, harpidetza guztien % 44,18 izanik ere, inkesten % 31,1 eman baitituzte. Arabak puntu bat baino apur bat gehiagoz gainditzen du bere kuota eta Nafarroa zegokiona baino 0,8 gutxiagoan gelditzen da. Euskal Herritik kanpoko jendeak —harpidetzen % 2,73— inkesten % 3,9 eman du. Emakumezkoek ere ez dute erantzun espero zitekeen legez, EMFko federatu nagusien % 27,32 izanik, inkesten % 15,7 bakarrik eman dutelako.

Inkesten % 25,6 euskaraz erantzun izana aldizkariaren etorkizuneko edukinetarako neurtu beharreko kontu garrantzitsua dugu. Gainera, gaztelaniaz egin dutenek ere, aldizkariak euskarazko orrialdeen ehuneko hori baino gorago heldu behar dela uste dute. Aitzitik, mendi jarduerek eta gure irakurleen gustuek aldaketa gutxi izan dute urte hauetan, inkesta gehienek proposatzen dugun gaien aniztasuna eta aldizkariaren gaur eguneko formatoa ontzat ematen baitituzte. Izan ere, bai aldizkariaren itxurak eta bai haren edukinaren atal desberdinek ere ontzat hartzen dira, irakurleen interesari dagokionez, ataletarik 6 oso ondo kalifikazioraino helduz.

1988ko inkestekiko aldeari dagokionez, Espedizioei buruzko artikuluen interesa jaitsi egiten da (2.etik 5. postura pasa da) eta orobat Euskal Herriari buruzkoenak ere behera egiten du (hauek oso gutxi, lehen postuari eutsiz). Aldi berean, Ingurumena, Elkarrizketak, Mundua eta Penintsula-irlak ataletakoak igo egiten dira. Irakurleek gogoan gehien atxikitzen duten artikulua, alde nabarmenaz, "Recorridos circulares por refugios pirenaicos" da, ondoren "Montaña subterránea" eta "Gredos" izeneko monografikoak doaz eta, franko beherago, "Puna de Atacama" izenekoa.

Amaitzeko, galdetegia bete dutenek, edukina eta itxurari erreparatuta, 7,3 puntuko nota ematen diote Pyrenaicari. Inkestatuen % 79,4k oso ondo nahiz bikaina eman digu, ezgainditutzat hartzen gaituen % 3,8aren kontrako aldean. Eskerrik asko guztioi.

La voz del lector

29 años al frente de Pyrenaica y todavía no había escrito un Editorial, así que ha llegado el momento, pues también hacía 21 años que no realizábamos una encuesta para conocer los gustos y sensibilidades de los lectores de la revista. En esta ocasión, siguiendo los consejos de profesionales en la materia, decidimos cambiar el formato y realizar la encuesta a través de la web de Pyrenaica y gestionada por una empresa especializada. El objetivo era que 500 personas completaran el cuestionario en el plazo de casi un mes.

En la redacción de Pyrenaica teníamos cierto temor a que participara poca gente, pero nos vimos desbordados por la realidad, pues en cuatro días habían contestado unas 400 personas, de modo que tuvimos que cerrar el acceso 18 días antes de lo previsto, cuando teníamos 656 encuestas válidas. Fue una petición de la empresa gestora, puesto que habíamos rebasado en 156 la cifra acordada. Por ello, jgracias a todos!

La participación ha sido muy dispar de unos Territorios a otros, destacando los lectores de Bizkaia, el 38,9 % de las encuestas completadas, cuando sólo suponen el 29,17 % del total de suscriptores. En el polo opuesto se encuentra Gipuzkoa, con el 31,1% de las encuestas, cuando suponen el 44,18% del total de suscriptores. Araba supera en algo más de un punto su cuota y Nafarroa, se queda a 0,8 puntos de la participación que le correspondía. La gente de fuera de Euskal Herria —el 2,73 % de los suscriptores— ha aportado el 3,9 % de las encuestas. Las mujeres tampoco han respondido como cabía esperar, pues

suponen el 27,32 % del total de federados mayores de la EMF, mientras que sólo han aportado el 15,7 % de las encuestas.

Una cuestión muy importante a valorar para los futuros contenidos de la revista es que el 25,6 % de las encuestas han sido contestadas en euskera. Además, los que lo hacen en castellano consideran que la revista tenía que superar ese porcentaje de páginas en euskera. Sin embargo, la forma de hacer montaña y los gustos de nuestros lectores han variado poco en estos años, apostando en la encuesta por la variedad de temas que proponemos y por el formato actual de la revista. De hecho, tanto la forma de la revista como las diferentes secciones de su contenido aprueban sobradamente, llegando 6 de las secciones a alcanzar el notable en cuanto a interés de los lectores.

Respecto a la encuesta de 1988, baja el interés en los artículos de Expediciones (pasa del 2º al 5º lugar) y Euskal Herria (éstos ligeramente, manteniéndose en primer lugar) y sube bastante el de los artículos de Medio Ambiente, Entrevistas, Mundo y Península e islas. El artículo más recordado por los lectores, con diferencia, es el de "Recorridos circulares por refugios pirenaicos", seguido por los monográficos sobre la "Montaña subterránea" y "Gredos" y, bastante por debajo, por la "Puna de Atacama".

Para concluir, la nota que dan a Pyrenaica los que han completado el cuestionario, tras valorar continente y contenido, es de 7,3 puntos. Un 79,4 % de los encuestados nos da notable o sobresaliente, contra un 3,8 % que nos suspende. Muchas gracias a todos.

Antonio Ortega